

Herrera

Sportingen balantze ona

Larraitz Garmendia [fnoa.: 391267]

herrerako Sporting futbol taldeak bukatu du aurtengo denboraldia eta iritsi zaio ondorioak ateratzeko garaia. 96-97 hone-tan, zazpi talde federatu ibili dira buru belarri txapelketan eta eskola mailan bik hartu dute parte.

Haur kategorian Euskadi-ko Selekzioan Sporting talde-tik hiru futbolari aritu dira, Roberto Tejada, Christopher Diez eta Gorka Zabalo. Euskadi sub-15 mailan bi, Juan Ezkerra eta Javier Santos.

Bestalde, azpimarra dai-teke Xabi Arizmendia eta Unai Elizalde herreratarrak gazte eta haur mailetan Rea-lean jolasteko deituak izan direla.

Dena den, Sportingek lor-tutako emaitzak hauexek dira: Gazte Liga Nazionalan 10. postua, jubeniletako lehenen-go mailan hirugarrena eta

Sporting taldeak bost jokalaria ditu Euskadiko selekzioaren beheko mailetan



Sporting futbol taldekoak pozik daude egindako denboraldiaz.

bigarren mailan berriz laugarrena. Kadete mailan Euskal Ligan 10. izan dira. Aldiz kadeteen bigarren A mailan Gipuzkoako ligako hirugarren

postua lortu da eta kadeteen bigarren B mailan hirugarren taldeko txapela.

Azkenik eskola mailako-tan Herri-Ametsa-Altza-Spor-

ting ekipoak Gipuzkoako txapel-dun geratzea lortu du, eta I. B. Altza-Sportingek joko ezin hobea egin du udaberriko txapelketan eta ligan.

Altza

Altza irratia berriz uhinetan

Altza Irrati Tailerrak aurtengo lehen aldiz goizez egingo ditu uda parteko emankizunak. Uztaila bitartean FM 107.4ak musikaz aparte, eduki interesgarriak hurbilduko dizkio altzatar orori, are gehiago kontutan hartzen badugu inguruko jai eta ekintzak zuzenean eta gertutasunez eskainiko dizki-gutela.

Goizero 10:00etatik 13:00etara zatoz bada Altza

Irrati Tailerraren sintoniara.

Kasaresen ordutegi berria


Kasares kultur etxeak udarako ordutegia martxan jarri du. Lanegunetan 10:00e-

tatik 14:00etara izango duzu irekita eta ostegunetan goizez irekita egoteaz gain arratsaldeko txanda ere izango duzu 16:00etatik 19:00etara. Hori bai, hemendik aurrera larunbatetan itxita dago.

Ekaitz

MOTA ASKOTAKO GOFREAK, IZOZKIAK, MERIENDAK...

Fermin Kalbeton, 42 / Tfnoa.: 424551



Iparagirre 8
Tfnoa.: 271866


MATRIKULA IREKIA. PLAZA KOPURU MUGATUA.

Leapaindegiko Lanbide Hezkuntza XXX. promozioa, 97/98 ikasturtea

- Ikas ezazu sormendun lanbide bat.
- Lan irtenbide garrantzitsuak.

- Gipuzkoako Gazte Txapelketa (18 urtetik beherakoentzat).

- 91/92: 2. eta 3. dominak
- 92/93: 1. eta 2. dominak
- 95/96: 1. eta 3. dominak



Karmengo Ama 14
Tfnoa.: 282181

KALITATEZKO HEZKUNTZA, GIRO JATORREAN!

TEKNOLOGIA, DISEINUA, ESPRESIO GRAFIKOA ETA PRAKTIKAK

OIHALAK PISURA

KILOKA

ORDENAGAILUZ EGINDAKO BORDATUAK
(Inizialak, izenak, marrazkiak...)

Artetxe Jenerala D • Tfnoa.: 28 07 56

Intxaurren

Marrutxipiko erreka bideen etorkizuna abian

Orain kotxerak dau den lekuan hipermerkatu bat jartzea, babeseko 135 etxebizitza eraikitzea eta kotxerak hegoerreka bidean kokatzea erabaki zuen ekainaren 3ko gobernu batzordean Udalak. Hiru alde sinatu zuten hitzarmena: Gasteizko gobernuak, Udalak eta Tranbia konpainiak.

Aiala Fernandez (ifnoa.: 292812)



Argazkia: Inaral Otegi

Egun kotxerak dau den toki honetan, hipermerkatu bat eraikiko da.

dau den lekuan hipermerkatu bat eraikiko da.

Auzotarrak haserre

Ipar Haizea, Zulo Zahar eta Hego Intxaurren auzo elkarteek beharrezko ikusten dute kiroldegi bat eraikitzea Marrutxipiko erreka bidean. Beraien ustez ezinezkoa da ordea, kiroldegia eta kotxerak batera joatea; horrexegatik eta 1994. urtean onartutako plan orokorrak diotenari eutsiz, kiroldegia eraikitzeke erabakia errespetatu dadila eskatzen dute.

Gasteizko Gobernuak eraikiko dituen 135 etxebizitza babestuen politikarekin ere ez daude ados, halako etxebizitzak izanik beharko luketena baino askoz ere prezio altuagoak dituztelako.

Guzti honegatik eta auzoak dituen behar eta interesei begiratuta auzia berrikusi dadila eskatzen dute.

guztira 636 milioi beharko dira, hauetako 245 milioi Gasteizko Gobernuak jarri beharko ditu eta 391 berriz Udalak.

Ituna sinatu eta hiru hilabeteko epea daukate plan berezi bat prestatzeko, Gasteizek egin beharko du

enkargua, tramitazioa aldiz Udalaren esku geratuko da. Tranbia konpainiak, bi urteko epea izango du, plan berezia onartzen den momentu beretik, kotxerak lekuz aldatzeko.

Bitarte honetan, Gastei-

zek 135 etxebizitza eraiki beharko ditu, eta Otxoki, 54.000 metro karraturekin, Lau Haizetaren atalurreko tza geratuko da.

Marrutxipiko ipar erreka bideak berdegune funtzioa beteko du eta egun kotxerak

Argazkien honen edizioa lizentziatuta

En la edición de esta publicación colabora

kutxa fundazioa
fundación

IRUTXULO
Donostiako astekaria

BANATZAILEAK

BEHAR DIRA
IRUTXULON

42 95 93 edo 42 68 07 telefonora **DEITU**
eta **ANDER**rengatik galdetu